

solasean

IKAk, 31 ENBIDO!

IKAk 31 urte bete dituen honetan, euskaltegiak enbidoa jo nahi du Arabako Errioxan. Izan ere, egoera asko aldatu da 31 urteotan.

31 bakarrik ez, hogeita hemeretzi ere bete ditu Arabako Errioxako euskaltegiak, eta ez dago azalpen handirik eman beharrik urte horietan guztietan izandako aldaketa irudikatzeko. Hasierako garai haietan ia ez zegoen euskaraz zekien heldurik, Ikastolak ere hastapenetan zeuden... Gaur egun, berriz, Ikastolez gain, ikastetxe publikoek ere euskaraz eskaintzen dute euren zerbitzua. Bai, egoera aldatu da.

Agerikoa da duela 31 urte euskaraz ikasteko ahalegina egindakoek klasetik aparte ez zutela ia aukerarik euskaraz jarduteko, entzuteko... Orain irri eta telebistaz gain, Interneten aukera handia da, eta, gainera, Tiki-ttaka, Arabako Errioxako euskara elkarte, ez da bakarria ekitaldiak euskaraz bultzatzen; hor daude herrietan beste elkarte batzuk ere: Matraka, Kasikojolabubilla, gazte-asanbleak... baita zenbaitetan zenbait udal ere, eta, noski, mintzalagun eta gurasolagun proiektuak. Egoera aldatu da, bai.

Urte askotan, euskaltegiko irakasleek, ikasleen laguntzarekin, beren lana beharko lukeen euskara-eskolak emateaz gain, diru-bilketak egiten, zozketak, txosnak jartzen eta abarretan ibili behar izan dute. Kobratu gabe ere hilabeteak egin dituzte eta gutxi kobratuta urteak. Oraindik ere gutxietsitako

lana da euskaltegiarena, baina, bai, egoera aldatu da.

Lehen, duela 31 urte, behe urratsek osatzen zuten euskaltegiaren jarduna, batez ere, euskara ikasten hutsetik, zerotik, hasten zirenek. Gaur egun, euskaraz moldatzen diren ikasleak dira gehiengoak. Aurten, esaterako, duela 31 urte ikasle izandakoan

90 seme-alaba dira euskara hobetzeko taldeetan. Aldatu da, bai, egoera.

Orain dela 31 urte erritmo bakarra zegoen euskara ikasteko, astean zortzi ordukoa, hain zuzen. Egun, ikasleen erdiek bestelako modulu eta sistemetan ikasten dute: Internet bidezkoa, tutoretza eta mintza-saio bidezkoa...

Egoera aldatu da, bai, eta euskaltegiak egoera normalizatutakoan ixteko asmoarekin sortu ziren, baina enbido jo arren, oraindik ez du 31 eskutik; izan ere, bada lana inguruotan. Datuek diotenez, herritarren %90ek euskaraz jakin nahiko lukete, baina %52k ez dute ulertu ere egiten.

Oraindik betiko zurrumurru, topiko eta gezurren aurka lan egin behar da. Berrogei urtetik aurrera ezin dela euskara ikasi: gezurra. Euskara hizkuntza zaila dela: zailtasun bera du gaztelania ikasi duen euskaldunak eta euskara ikasi behar duen erdaldunak. Garestia dela: gaur egun maila gehienetan doan edo ia doan ateratzen da, dirua aurreratu behar bada ere.

31 urte hauetan Administrazioak bere egin ez duen zerbitzu garrantzitsua eskaini du euskaltegiak. Eta jarraitu beharko du urteetan, aipatu bezala, oraindik ere herritarren ehuneko handi batek ez duelako ulertu ere egiten, Administrazioak gizarteak izan duen bilakaera izan ez duelako eta "Eske, jendeak ez du eskatzen" esaten jarraitzen duelako,

gizartea ere aldatuz doalako eta kanpotik etorri zaigun jendea euskarara hurbildu beharra dagoelako...

Bai, egoera aldatu da, baina ezin da oraindik hordagorik jo. Hala ere, 31 urte betetzearen ospakizuna aprobetxatu nahi du IKAk euskarak hurbil izan zaituzten guztioi eskerrik asko esateko.



IKA euskaltegiak 31 urte betetzen dituela aprobetxatuz, euskara sustatze lanean lagun izan ditugun zenbait pertsonari hitz gutxi batzuetan euskaltegiari buruzko balorazioa eskatu diogu.

Aprovechando que IKA cumple 31 años, hemos pedido a algunas personas con las que hemos coincidido en la promoción del euskera que en unas pocas palabras valoren el trabajo del euskaltegi.



Alicia Fernández

Zorionak euskaltegiako ekipo osoari bere 31. urteurrenean!

Euskara Ikasi eta maitatzeko ibilbidean euskaltegian izan nintzen: hasieran, "nor nori nork, baldintza eta subjuntiboarekin"; geroago, EGA ateratzeko garaian, eta, azkenik, irakasle ere izan nintzen zuekin batera, eta hor konturatu nintzen hizkuntza hau egitura gramatikalak baino askoz gehiago dela. Ez da zuena lan erraza garai eta zonalde honetan: meritu itzela duzue. Eta ez etsi! Ni bezalako fruitu umilak zuen lanaren ondorioak dira. Eskerrik asko bihotzez!

¡Enhorabuena a todo el equipo del euskaltegi por su 31 aniversario!

En mi ruta de aprender y amar el euskera estuve ahí: al principio, con el "Nor -nori-nork, baldintza eta subjuntibo"; más tarde, a la hora de obtener el EGA, y, por último, también fui profesora junto a vosotr@s. Ahí me di cuenta de que esta lengua es mucho más que estructuras gramaticales. No es tarea fácil la vuestra en esta época y en esta zona: tenéis un mérito inmenso. ¡Y no os rindáis! Los frutos humildes como yo son consecuencia de vuestro trabajo. ¡Gracias de corazón!



José Javier Elvira

IKA, Mendabia, euskara harreman estua. Urte askotako harremana. 31 urte lehenaldi perfektu batean. Bizitza bat aurretik, gogo biziz eta proiektu handiz betea.

Betikoa, betiko... IKA

IKA, Mendabia, euskara una íntima relación. Una relación de muchos años. 31 años de un pretérito perfecto. Una vida por delante llena de entusiasmo y de grandes proyectos.

Por siempre, para siempre...IKA

Ketxu Bedialauneta

Urteetan zehar ikusi dut nolako lana egin duzuen euskararen alde eta zenbat eta zenbat pertsona euskaldundu duzuen. Eskertzekoa da horrelako inguruan egin duzuen lan eskerga euskara jendearen ahoetara eramateko. Lan bikaina benetan. Gurean kokatuta duzue zuen eskola eta gure arteko harremana beti ona izan dela esango nuke. Gainera gure guraso nahiz langileak euskalduntzeko aukera ematen duzue eta hori eskertzekoa da. Eskerrik asko urte hauetan zehar egin duzuen lan guztiagatik.

A lo largo de los años he visto cómo habéis trabajado a favor del euskera y cuántas personas habéis euskaldunizado. Es de agradecer el gran trabajo que habéis realizado en este entorno para llevar el euskera a la boca de la gente. Un gran trabajo. Vuestra escuela está instalada en la nuestra y yo diría que la relación entre nosotros siempre ha sido buena. Además, ofrecéis la posibilidad de





euskaldunizar tanto a nuestros padres/madres como a nuestros trabajadores/as, y eso es de agradecer. Gracias por todo el trabajo que habéis realizado a lo largo de estos años.

Arturo López de Lacalle

Erdaldun jaio nintzen; euskaraz hazi nintzen, eta egun euskaraz bizi naiz. Bide honetan, eskerrik asko aita eta amari; eskerrik asko Oiongo IKA euskaltegiari bere 31. urteurrenean; eskerrik asko Erentzun eta San Bizente Ikastolei! Arabako Errioxa eta euskaltegia nire eta beste garai hartako gazteen aukera izan zena eta izango dena!

Mi lengua materna fue el castellano, crecí en euskera y ahora vivo en euskera. En este camino gracias aita y ama, gracias euskaltegi IKA de Oyón en tu 31 aniversario y gracias a las ikastolas Erentzun y San Bizente! Rioja Alavesa y el euskaltegi fue y será una oportunidad para mí y para los jóvenes de aquella época!





Vidal Olabarria

Lehenik eta behin, zorionak eman nahi dizkizuet 31 urte hauengatik, ziur ez baitira errazak izan; zorionez, gaur egun euskara onartuago eta normalizatuago dago, eta hori ez da beti horrela izan. IKAr buruzko nire ezagutza ikasle ohi gisa datorkit. Oraindik gogoratzen dut nola dibertitzen ginen klasean, hori bai ikasiz. Irakasle onak! Eta zorionak sortutako harreman instituzionalagatik, oso positiboa izan dela uste baitut. Jarrai ezazue, eta jarraitu ilusio berarekin, gure euskararen alde lanean. Besarkada handi bat

En primer lugar felicitaros por estos 31 años, que seguro que no han sido fáciles, afortunadamente hoy el euskera es algo asumido y normalizado, algo que no ha sido siempre así. Mi conocimiento de IKA me viene como antiguo alumno, todavía me acuerdo como nos divertíamos en clase, eso sí aprendiendo, que grandes profesores y por la relación institucional, que creó que ha sido muy positiva. Desearos que sigáis, con la misma ilusión, trabajando por nuestro euskera. Un fuerte abrazo



Rober Okariz

Atsegin handiz gogoratzen dut euskaltegian irakasle jardun nuen garaia. Gogoan dut zein alaiak ziren klaseak eta zelako giroa izaten zen ikasleen artean. Gogoan dut bertako irakasleen lan nekaezina euskararen eta euskal kulturaren zabalkundean. Zorionak eta bide beretik jarraitu helduen euskalduntzean eskualdea euskararen kolorez margotzen!

Tengo un excelente recuerdo de los años en los que trabajé en el euskaltegi. Recuerdo lo alegres que eran las clases y el buen ambiente que había entre alumnas y alumnos, el trabajo incansable de profesoras y profesores en favor del euskara y la difusión de la cultura vasca. ¡Zorionak y seguid por el mismo camino en la euskaldunización de adultos pintando del color del euskara la comarca!



Zuriñe Gamarra

Nik euskaltegian denbora luzea eman nuen; nire bigarren etxea bezalakoa zen. la zerotik hasi nintzen ikasten, eta maila ona lortzeko asko ikasi behar izan nuen. Gustura joaten nintzen euskaltegira giro ederra geneukalako. Ikasi egiten genuen, eta, aldi berean, primeran pasatu. Euskarari esker oso jende interesgarria ezagutu nuen, eta, benetan, oso giro ederra sortzen zen euskaltegiaren inguruan. Astean behin ikaskideok elkartzen ginen euskal poteoa egiteko; euskaraz baino ezin zen egin. Batzuetan oso barregarria zen. Euskaltegian aukera asko dago: zerotik ikasi, maila hobetu, tituluak lortu, gure herriaren kultura ezagutu eta gozatu, lagunak egin, euskal poteoan jardun... kar, kar. Zorionak 31. urteurrenean. Bejondeizuela!

Yo pasé mucho tiempo en el euskaltegi; era mi segunda casa. Enpecé prácticamente de cero, y para conseguir un buen nivel tuve que esforzarme mucho. Iba muy a gusto; aprendíamos, y al mismo tiempo lo pasabamos muy bien. Gracias al euskara conocí a gente muy interesante, y la verdad es que se creaba un buen ambiente en torno al euskaltegi. Una vez a la semana nos juntabamos los de clase para potear; solo podíamos hablar en euskera. A veces era muy gracioso. En el euskaltegi hay muchas oportunidades: aprender desde cero, mejorar el nivel, conseguir títulos, conocer y gozar de nuestra cultura, hacer amigos, potear... ja, ja. ¡Felicidades por ese 31 aniversario!



TESTUAK: Arabako Errioxako IKA

ARGAZKIAK: Arabako Errioxako IKA.

ILUSTRAZIOAK: Arabako Errioxako IKA.

Mantible aldizkariaren gainontzeko aleak eskuragarri dituzue gure web orrian tresnak izeneko atalean.

En nuestra página web podéis ver los números anteriores de Mantible, en el apartado de herramientas.

Oiongo IKA euskaltegia. Diputazio kalea, 32. 01320 Oion. 945 601 087

Biasteriko IKA Euskaltegia. Berberana zeharkalea, 5. 01300 Biasteri. 945 621 055

<http://errioxa.ikauskaltegiak.eus>

errioxa@ikauskaltegiak.eus




Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

zuek ere euskaraz


Azalean aipatu bezala Euskaltegiak enbido jo nahi du, 31 eta eskutik sentitzen baitu, eta bide horretan musean euskaraz jokatzeko irakatsiko dizu. Animatzen?

En este número de Mantible queremos enseñaros a jugar al mus en euskera. Aquí tenéis todo el vocabulario necesario para ello.


KARTAK / LAS CARTAS



Bateko urrea /
As de oros




Biko ezpata /
Dos de espadas



Hiruko bastoia /
Tres de bastos



Lauko kopa /
Cuatro de copas




Beltzak / figuras: Txota /sota, Zaldia / caballo, Erregea / rey



Bi bosteko / Dos cincos
Pareak / Pares



Hiru seiko / Tres seises
Meriak / Medias



Lau zazpiko / Cuatro sietes
Dupleak / Duples

MUS PARTIDA / PARTIDA DE MUS

Nor da kartak ematen? / A quién le toca dar las cartas?

Nor da esku? / ¿Quién está de mano?

Lau erregetara edo zortzi erregetara? / ¿A cuatro reyes o a ocho reyes?

Ez dago musik / No hay mus

Hasi! Hitz egin! / ¡Empieza! ¡Habla!

Handira paso / Paso a mayor / Paso a grande

Bost txikira / Cinco a pequeña / Cinco a chica

Biak jota, txikia eta handia / Envido a las dos, grande y pequeña

Eduki / nahi / Quiero

Parerik? / ¿Pares?

Pareak bai / Pares sí

Enbido / Envido

Eduki eta bi gehiago / Quiero y dos más

Jokua bai / Juego sí

Puntura enbido / Envido a punto (**Puntu utzia** / nadie ha envidado a punto)

Hogeita hamaika eskutik / Treinta y uno de mano

